

# Memoria historikoaren eraikuntza soziala aztertuko dute bihar, Astran

Hamargarren jardunaldiak izango dira aurtengoak • Urdaibain egindako oroimen historikoa berreskuratzeko tokiko ekimenetan oinarrituko dira jardunaldiak

**- ANE MARURI ARANSOLO** Antimilitarismoari eta memoria historikoari buruzko Jardunaldi Antimilitaristak antolatu izan ditu Gernika Gogoratuzek 2013az geroztik. Ordutik, urtero zabaldu dute gerren kontrako mezua, eta etorkizuneko gerrak saihesteko asmoz, herritarrek saihesteko atzoz, herriarrak hamargarren jardunaldiak izango dira aurtengoak, eta memoria historikoaren eraikuntza sozialean jarriko dute arreta.

Bihar, 18:30etik 20:00etara bitartean, Gernikatik Mundurak, Gernika Gogoratuzek, Ideasurrek eta Astrak prestatutako jardunaldiaz gozatzeko aukera edukiko dute parte hartzaileak, Astran. Hain zuzen ere, Urdai-

baiko bi adibide aztertuko dituzte aurtun: Gernikako Gerra-Presoen Ospitale Militarra (1938-1940), 269 preso *In memoriam*, eta Angel Lekuonaren omenez jarritako Stolperstein monumentua. «Urdaibain egindako oroimen historikoa berreskuratzeko tokiko ekimenetan oinarrituko dira aurtengo jardunaldiak. Bi ikerketa horiek aurkeztuko dituzte euren egileek», azaldu dute Gernika Gogoratuzeko ordezkariak.

**Presoen Ospitale Militarra** Memoria historikoaren lanketan beste pauso bat eman dute aurtun Gernikazarra Historia Taldeak eta Pipergorri Kultur Alkartek. Hain zuzen ere, 1938tik

1940ra bitartean Gernikako Ospitale Militarrean benetan gertatu zena jakitea bilatu dute, ahalik eta datu gehienak bilduz eta orain arteko ezagutza zabalduz. Halaber, biktimen familien errehabilitazio soziala eta etikoa sustatu dituzte, gertatutakoak zauri handiak eragin zituelako. Hala, aurtengo proiektuari buruz, bihar dira Pipergorriko kideak, bihar.

1938-1940 Gernikako Gerra Presoen Ospitale Militarra liburua argitaratu berri dute, bi ataletan banatuta: *Gernikan hil* eta *269 preso in memoriam*. Gernikazarrako Txato Etxanizek eta Vicente del Palaciok egin dute lehen eta Amagoia Lopez de Larruzeak eta Iñaki Uribarrenak bigarrena. Lehen ikerketak zelan

eta zergatik egin zituzten kontatzen dute, eta 269 presoak identifikatu dituzte Pipergorrikoek.

Ospitalean hildakoak zenbatu dituzte, baina horiei merezi duten balioa eman gura izan diete Pipergorriko kideak. Hala, izena eta izana eman diete, eta hildakoen errelatoa jaso dute.

## Anjel Lekuona

Anjel Lekuona busturiarra Hraistko kontzentrazio esparru nazian hil zuten, eta Busturiko Udalak eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubi-deen Institutuak Lekuonaren omenezko Stolpersteine plaka bat jarri zuten udan, Altamirako enparantzan, Anton Gandariasen lanari esker.

Gandariasek jakin zuten 1945eko apirilaren 10ean fusilatu zutela Lekuona, Hirugarren Reicheko kontzentrazio esparru batean preso zegoela, Frantziatik erbesteratua izan ondoren. Izan ere, 36ko gerran Errepublikaren alde borrokatu zuten, eta horrek erbestera eraman zuten gerra ostean, Frantziara. Han, hainbat kontzentrazio esparrutan egon zen, eta naziek Frantzia okupatu zutenean, deportatu, eta beste hainbat kontzentrazio esparrutatik pasa ostean, fusilatu egin zuten Hraistkon, gaur egungo Txekiar Errepublikan.

Gandariasek osabaren arrastoari jarraitu dio hodei urtez, eta ikerketa horien ondorioz, osaba 1943ko udan Gestapok atxilotu zuela jakin zuten: Fregorio Urangak bidalitako gutunari esker jakin zuten Lekuonaren familiak atxilotu eta fusilatu egin zutela. Gutun horrek zehaztu zuen Lekuona 1945ko apirilaren 10ean hil zutela, bide bazterrean, beste zenbait presogaz batera.

Herritarrei bihar Astrara bertaratzeko deia egin diete antolatzailerak.

# Pipergorri: «Iturri eta Briñas fusilatuen memoria jaso behar dugu»

Juan Carlos Iturri eta Clemente Briñas Muga gernikar sozialistak fusilatu zituzten 1937an • Euren memoria eskubidea aitortu beharra dagoela diote Pipergorrikoek

## -A.M.A.

Juan Carlos Iturri Soroa eta Clemente Briñas Muga gernikar sozialistak 1937an kartzelaratu eta fusilatu zituzten, golpistak Bizkaian sartu eta gero. Biak izan ziren Gernikako alderdi sozialistako kideak, Errepublika denboran zinegotzi izandakoak. Urgentziazko *sumarisimoa* ezarri zieten asaldatze delitupean, eta heriotza zigorrera kondenatu zituzten; hala, Larrinagako kartzelatik atera eta Derioko kanposantuko horma baten kontra fusilatu zituzten, Iturriek 38 urte zituela (1937-07-03) eta Briñasek 59 (1937-07-25). Horregatik, memoria eskubidea aitortu behar zaiela aldarrikatu dute elkartekoek: «Gernikarrok Iturri eta Briñas fusilatuen memoria jaso eta barnerratu behar dugu».

Gernikarren memorian Iturri eta Briñas gertatutakoa gorde



PSE-EEK egindako omenaldian egon ziren Iturriren familiakoak. P.K.A.

beharra dagoela adierazi dute. «Hori eskatu dugu Pipergorri eta Gernikazarra taldekoek Jose Mari Gorroñogaz aspaldian izandako batzarretan. Azkenean, Bilboko Euskalduna Jauregian

PSE-EE alderdiak egin ziren omenaldia *Mas memoria. Mas justicia* izeneko jardunaldietan».

Iturriren familiakoak bertaratu ziren omenaldira, eta Iturriren loba Izaskun Iturriek bere ai-

tonaren eta Briñasen «memoria berreskuratzeko ordua zela» adierazi zuten: «Herri bat ez da ezer bere historia barik, baina herri bat ez da hobe izango bere erruei eta lorpenei ez badie aurre egiten. Gertatutakoa aitortu eta munduari erakutsi behar zaio. Orain arte miseriak eta bizipeanak isilpean gorde behar izan ditugu. Bada garaia argia pizteko».

Halako kasuak «ertz ilunetatik atera» behar direla diote, «gizartearen memoriaren betebeharraren harira», eta Fernando Martinez Espainiako Estatuko Memoria Demokratikoko idazkariak gogoratu zuten familiek ministerioak eskaintzen duen Aitortza eta Erreparazio Adierazpen Ofiziala eska dezaketela.

Pipergorri eta Gernikazarrakoek diote «egin beharreko omenaldia» zela, «memoria bizirik mantentzeko».

## Txotxongiloak, emakumeenganako indarkeria gelditzeko

**KULTURA** // Gernika-Lumok Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna gogoratuko du aurtun ere, eta aste honetan, hainbat jarduerak egingo dituzte horretarako. Gaur hasiko dira ekintzekin, izan ere, 2 urtetik gorako ume-entzat *Kalean Otso Etxean Uso* izeneko txotxongiloen antzezlanari prestatu dute; Elai Alai aretoan jarri dute hitzordua, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

## Aurtengo Marijesiak antolatzeko batzarra egingo dute barikuan

**KULTURA** // Gernika-Lumoko Marijesiak abenduko kantaldi saioak antolatzen hasiko dira barikuan. Hain zuzen ere, Andra Mari koralaren aretoan elkartuko dira, 19:30ean. «Batzarrean bertan aurtengo Marijesien betebeharrak eta ardurak elkarren artean banatuko ditugu», zehaztu dute deitzaileek. Hala, beste urte batez, Gernika-Lumoko kaleak tradizioz betetzeko asmoa daukate marijesiek.